

PSOE-ak loteria irabazi

El Mundo del País Vasco, 1991-09-20.

Jauregi jaunak egin ditu merituak. Herenegun 222 egun bete zuen Eusko Jaurlaritzako gobernu hirukoitzak azken eguna, eta azkenean aztiak igarri zion kapikua zen zenbakiarekin joan da pikutara! Asko sufritu eta gero, igarleak kapikua egunerako agindu zion lurrikara politikoa, baina zazpi hilabete hauetan kapikua askotatik pasa da fronte nazionalista. Bazekien aurten zela, 1991an; gero, hiru figurako lehen kapikua 101, eguneko iraupena izan zen lehen bihozkada; hurrengo kapikua 111 izan zen; baina gertuegi! gero, 121, eta aspaldi ahaztuxea zeukan abemaria bat osorik gogora ekarri zuen oposizioko politikorik estimatuenarekin sintonia lortzeko asmotan, abemaria bat balio du eta "gubernukide bezala onartu gaitzaten, amen". Eta alferrik. Hamarkadaka 131tik 191 arteko errosarioa luze egin zitzaion, baina halere bigarren ehunkadako lehenengoan piztu zuen kandela gorria 202ra heldu, eta prentsaurrekoak egunero ematen jarri zen bezain laster jarri ziren euskal ortzeko izarrak mugitzen, eta itsuen zozketarako 222 zenbakiaren bila bidali zituen inperioan zehar, goizeko ordubietan Madrileko Txinoen auzotegian aurkitu zuten arte.

Ez zioten itsuek dirurik eman, ez baitzen 222 irten, baina seinale ona izan zen, zeren eta EL MUNDO DEL PAIS VASCO egunerokoak kontatu zizkion egunak seigarren orrialdean: "La larga tensión de sólo 222 días". Azkenik Jauregi jauna Ajuria Eneara deitua izan zen, eta hemen eman da "gobernu indartsu eta iraunkorraren" lehen urratsa.

Ez dakigu noren kalerako.